

## Urria eta azaroko kultura programazioa: dantza, antzerkia eta musika

- **Dozena bat ekimen biltzen ditu bi hilabeteotako kultura programazioak**
- **Bazkideek irailaren 26tik aurrera eskuratu ahal izango dituzte sarrerak; publiko orokorrak, berriz, irailaren 30etik aurrera**

**Andoainen, 24-09-19.-** Udako kultur programazioak bere azken zertzeladak eskaintzen dituen bitartean, Kultura Sailak aurkeztu du dagoeneko Urria eta Azaroa bitarteko programazioa. Marta Lasa Kultura zinegotziak nabarmendu du: “Betiko moduan, diziplina anitzeko programazioa aurkeztu du sailak, askotariko publikoarentzat antolatutak”.

Guztira hamabi kultur ekintza eramango dira aurrera: hiru erakusketa ezberdin ikusteko aukera izango da, lau antzerki emankizun, hiru musika kontzertu eta bi dantza emanaldi. Horien artean aurkitu daiteke, esaterako, **‘Ño!’ komikiaren erakusketa**; Miren Artetxe eta Eli Pagola bertsolariek bertso saio baten bueltan gerta daitezkeen hamar eszena bildu dituzte erakusketa honetan. Ikusi ahal izango dugu, baita ere, Ttanttaka Teatroaren **‘Mundua pitzatuta dago baina hantze gabiltza oinez’ antzerkia**; alabarekin nola komunikatu ez dakien aita baten istorioa kontatzen du emanaldiak. **Kukai dantza taldeak** ere dantzan jarriko gaitu **‘Txalaparta’** bere ikuskizunarekin eta jazz doinuetara gerturatuko gaitu **Aldapeko Basque Latin Jazz taldeak**. Hauek dira urria eta azaroa bitartean kultura programazioak emango dituen pintzelada batzuk, baina esan bezala, gehiago ere izango dira. Bastero Kulturguneko webgunean ( [bastero.eus](http://bastero.eus) ) edo Udaleko webgunean ( [andoain.eus](http://andoain.eus) ) egongo da programazio guztia eskuragarri.

Bazkideek irailaren 26tik aurrera izango dute sarrerak eskuratzeko aukera. Gainerako publikoak, berriz, irailaren 30etik aurrera.

### **‘Gabon giroan’ programazioa, lapikoan**

Lasak aurreratu du dagoeneko lanean ari direla abenduko ‘Gabon giroan’ egitasmoko programan lanean. Aurreratu daitezkeen ekimenen artean dago, esaterako, Gorka Urbizu musikariaren kontzertua, abenduaren 27an izango dena. Baina hau bezala, sona handiko beste hainbat artista ere Basterora gerturatuko direla azpimarratu du; eta nola ez, gogoratu du “herriko hainbat taldek eta eragilek ere zenbait ekintza erakargarri” antolatzen ari direla. Honen guztiaren berri azaroan emango da.

Bien bitartean, hurrengo bi hiletarako antolatu diren ekimenetan parte hartzeko gonbita luzatu du Lasak.

